

Ahizpatasuna



PAULA ESTÉVEZ



KATIXA DOLHARE-ZALDUNBIDE
LITERATUR ZALEA

Μνάσασθαι τινά φαιμι
καὶ ὕστερον ἄμμεων.
Norbait, uste dut,
oroituko da etorkizunean gutaz.
Safo (-630; -570)

Maite Idirin pausatu da, joan den urtarrilaren 20an. Itzal handiko anderea ez nuen ezagutu, baina haren ibilbidea gogoratzean, kantagintza herrikoitik musika klasikora, 1979an sortu zuen *Ahizpatasuna* kantua berriz entzutean, Jokin Apalategi Begiristain eta Paulo Iztueta Armendarizek *Maite Idirin, herrigintzan kantuz* liburua berriz irakurtzean (UEU, 2023), hausnartzen aritu naiz, azken egun hauetan.

Nihaurk ez dut ahizparik, baina *ahizpatasuna* hitzak berehala sustatzen du, ene baitan, familiako argazki bat, bestalde ezaguna dena, Baionako Euskal Museoa begiratu delako, legenda honekin: “Eskuz eginiko xistera fabrikazioa Azkainen. Lakarra familia”. Ikus daitezke aitama xaharrak erdian eta sei alaba inguruan –emazteak, jadanik–, aurpegia gogor, zume lanetan. Potreta hori ikusgai da Lapurdiko erakustoki nagusian eta dokumentu frankotan, baita Euskal Herriari buruzko fotografia liburua ederretan ere, pilota jokoaren

bilakaera irudikatzeko. Bizkitartean, etxean, argazki hori erakusten zigularik, amatxi Klarak bestelako iruzkina eskaintzen zigun: “Begira: hementxe daude gure amatxi Arrosa eta bere ahizpak. Neska horiek guztiek boz xoragarria zuten. Operan kantatzera joateko proposamena ukan zuten, baina etxean egon ziren, xisterak txirikordatzen”. Argazki mutu hori ez dut sekula lotu pilotaren historiarekin, sekula ez euskal kirol tradizionalaren modernizazioarekin, han eta hemen agertzen den gisara, baizik ahizpa arteko kantu zaletasun miresgarriarekin, eta kantagintza lirikoan loratzeko garaiko traba sozialekin. “Gizaldiz lotuak gaitun”, dio Maite Idirinek.

Ahizpatasunak oroitarazten dit ere bai Saforen poesia. Ezaguna da Lesbos uhartean bizi zen Safok goraiatu duela emakume arteko maitasuna, baina ez da aiantzi behar izan zela ere, musika klasikoan, lehen emazte konposatzailea, adituen arabera. K.a. VI. mendean, emazteen arteko elkartasuna batu zuen goi-mailako lirikarekin. “Hara non kantatuko dudan ederki, ene maitale andereeii plazer egiteko”, dio Safok.

“Irauliko bai dinagu, / gizonaren ortua”, erraten du *Ahizpatasuna* kantuak, emazteek haizu dutela gizonetzkoen ere-

muetan sartzeko eta berdintasunez aritzeko. Ez ote zigun hori adierazi, joan den urriaren 15eko ARGIA-n, Leire Artola Arinek *Emakume baserritarrak, funtsezkoak bezain ahaztuak* erreportajea, landa eremuko emakumeen nazioarteko egunaren kari? “Bizitzaren zaintza” dute helburu emazte laborariek, dio Ana de La Mazak artikuluan. “Landatuko bai dinagu / biziaren mezua”, Maite Idirinek. Zentzu literalean ez ezik, metaforikoan ere balio dute baieztapen horiek: emazteek, batak bestea sustengatuz, esparru guztietan ereindako zorion haziak zoin diren luzaz zerrenda genitzake.

Ahizpatasuna etenik gabeko elkartasuna da, denboraren, espazioaren eta klase sozialen arteko mugetatik at. “Emakume, ahizpatasunaren haizea dun, / etxetik irten hadi, bere gutuna entzun”, du otoizten Maite Idirinek: ahizpak dira lira lagun ari zen antzinateko olerkaria, XIX. mendeko erresioñola langilea, abeslari garaikidea eta etorkizuneko nekazaria; ahizpak, andere xaharra eta neskatxa gaztea; ahizpak, eskulanean kantuz ari den herritar xumea, eta gela ospetsua ahotsez betetzen duen musikari profesionala; hitzak, bihotzak eta gorputzak bizirik iraunarazten dituztelako. ●